

PRENTSA OHARRA: 2026.04.21

## Abian da KIMUAK 2026 film laburren aukeraketan parte hartzeko deialdia

- Hautatutako ekoizpenak KIMUAK 2026 izenpean sustatuko dira, bai Euskal Herrian, bai mundu mailan ere
- Aurtengo edizioan lanak aurkezteko epea maiatzaren 15era arte egongo da irekita
- Gehienez ere, ordu erdiko iraupena duten lanak aurkeztu ahal izango dira, eta 2025eko ekainaren 1etik aurrera osatuak izan beharko dute

**Donostia, 2026ko apirilaren 21a-** Euskal film laburrak sustatu, zabaldu eta banatzeko KIMUAK programa publikoaren deialdia ireki da. Prozesu honetan hautatutako lanak KIMUAK 2026 izenpean bilduko dira, eta gune espezializatuetan sustatuko dira, bai nazio mailan, bai nazioartean.

KIMUAKen edizio honetan hautatua izateak zuzkidura ekarriko dio film bakoitzaren ekoizlearentzat, banaketa-zerbitzuak kontratatzeraz eta horri lotutako gastuak estaltzeraz bideratuta egongo direnak.

Aukeraketan parte hartu nahi duten zuzendari edo ekoizleek 30 minututik beherako iraupena duten lanak aurkeztu behar izango dituzte. Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste film aurkez ditzake, betiere 2025eko ekainaren 1etik aurrera osatutakoak badira.

Euskararen eremu geografiko osoan eginiko euskarazko film laburrak onartuko dira deialdi honetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpenen kasuan, edozein hizkuntzatan egindakoak izan daitezke.

Filmek komertzialki estreinatu gabeak izan behar dute, eta gehienez ere 20 jaialditan inskribatuta egon izana onartuko da. Deialdiaren oinarriak eta izena emateko formularioa [kimuak.basqueaudiovisual.eus](http://kimuak.basqueaudiovisual.eus) webgunean daude eskuragarri.

KIMUAKek bere jarduna egungo testuingurura egokitzen du, eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarekiko konpromisoari eusten dio. Bere ibilbidearekin, euskal ikus-entzunezkoa bultzatzen eta sortzaileentzako aukerak sortzen jarraitzen du.

1998az geroztik Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, programa Zineuskadik kudeatzen du eta Etxepare Euskal Institutuak finantzatzen. Halaber, Euskadiko Filmategiaren laguntza du hautatutako filmen proiektzioarako.

## **Zineuskadi**

ZINEUSKADI irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta kide fundatzaileen artean daude Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskadiko produktoreen bi elkarteak: IBAIA eta EPE-APV.

Euskal ikus-entzunezkoen sektoreari laguntza estrategikoa ematea du xede nagusi eta, ildo horretatik, enpresei eta profesionali laguntza eskaintzen die nazio, Europa eta nazioarte mailan garatu eta zabaldu daitezzen.

Horrez gain, sare profesionalen sorkuntzarako sustapena eta laguntza kontuan hartzen dira, baita aniztasunaren eta Europako ondare zinematografiko eta ikus-entzunezkoaren defentsa ere, arreta berezia eskainita eremu urriko hizkuntzetako produkzioei.

## **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen

du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzaz sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

**Info +**

Komunikazio saila  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)